

# txostena memoria **2005**



Hurtado de Amezaga, 28 - 1º Izq. • 48008 BILBAO  
Tel.: 94 470 37 60 • Fax: 94 470 37 61 • E-mail: [elkarlan@elkarlan.coop](mailto:elkarlan@elkarlan.coop) • [www.elkarlan.coop](http://www.elkarlan.coop)



KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA  
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

“ELKAR-LAN, S.COOP. Kooperatibak Sustatzeko Elkartek” **2005** Txosten honetan jasotzen du **2005** ekitaldian zehar burutu duen kudeaketa, bere helburu soziala beteaz, hau da, Euskadin kooperatiba berrien eraketa sustatzea.

La “Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S.COOP.” recoge en la presente Memoria **2005** la gestión que ha desarrollado a lo largo del ejercicio **2005** en el cumplimiento de su objeto social de promover la creación de nuevas Cooperativas en Euskadi.

txostena memoria  
2005



elkar-lan  
S . C O O P .

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA  
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

HERRI ONURAKO izaera emandakoa  
Declarada de UTILIDAD PÚBLICA



# AURKIBIDEA

# ÍNDICE

	ORRIALDEA		PÁGINA
I. ORGANO SOZIALAK .....	5	I. ÓRGANOS SOCIALES.....	5
II. LEHENDAKARIAREN AGURRA .....	9	II. SALUDO DEL PRESIDENTE.....	9
III. INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA ..	13	III. INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN.....	13
IV. PRESTAKUNTZA.....	23	IV. FORMACIÓN.....	23
V. KOOPERATIBA-AHOLKULARITZA ETA ERAKETA.....	25	V. ASESORAMIENTO Y CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS .....	25
VI. TUTORETZA / JARRAIPENA .....	27	VI. TUTORIZACIÓN / SEGUIMIENTO .....	27
VII. 2005AN, S. COOPEKIN LOTURA IZAN DUTEN KOOPERATIBA BERRIEN ZERRENDA.....	29	VII. RELACIÓN DE NUEVAS COOPERATIVAS VINCULADAS A ELKARLAN, S. COOP., EN 2005.....	29
VIII. ELKAR-LAN, S. COOP. DIRUZ LAGUNDU DUTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA .....	57	VIII. RELACIÓN DE COOPERATIVAS QUE HAN COLABORADO ECONÓMICAMENTE CON ELKAR-LAN, S.COOP. ....	57





**ORGANO SOZIALAK**  
**• ÓRGANOS SOCIALES**



## ORGANO SOZIALAK (05/XII/31) ÓRGANOS SOCIALES AL 31/XII/05

### BATZAR NAGUSIA **ASAMBLEA GENERAL**



EUSKADIKO KOOPERATIBEN  
GOREN-KONTSEILUA (EKGK-CSCE)  
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE  
EUSKADI (CSCE)



EUSKADIKO KOOPERATIBEN  
KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)  
CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE  
EUSKADI (CCE)



EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN  
FEDERAZIOA (ELEKF-FCTAE)  
FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE TRABAJO  
ASOCIADO DE EUSKADI (FCTAE)

### KONTSEILU ERREKTOREA **CONSEJO RECTOR**

LEHENDAKARIA <b>PRESIDENTE</b>	Agustín Mendiola Gorospe	ELEKF <b>FCTAE</b>
LEHEND.ORDEA <b>VICEPRESIDENTA</b>	Marta Aréizaga Ezkurdia	EKK <b>CCE</b>
IDAZKARIA <b>SECRETARIO</b>	Juan Luis Arrieta Pagaldai	EKGK <b>CSCE</b>
KIDEAK <b>VOCALES</b>	Javier Gantxegi Alday Natividad Puertas Alonso José Antonio Ugarte Elorza Alfredo Montoya Estíbalez Javier Salaberria Amesti	ELEKF <b>FCTAE</b> ELEKF <b>FCTAE</b> ELEKF <b>FCTAE</b> EKGK <b>CSCE</b> EKK <b>CCE</b>
ZUZENDARIA <b>DIRECTOR</b>	Fco. Javier Sanz Santaolalla	









**|| . LEHENDAKARIAREN  
AGURRA  
*SALUDO DEL PRESIDENTE***

2005eko ekitaldia bere jarduerako hirugarren urtea izan du ELKAR-LAN, S. COOP. Kooperatibak Sustatzeko Elkarteak, eta hirurteko honen bukaeran esan behar da bete egin dela ELKAR-LAN, S. COOP. sortu zuten Euskal Kooperatiba Mugimenduko hiru erakundeek — Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak— hasieran zuten itxaropena.

Uste dut 2005eko Oroitidazki honetan eta aurreko bi urteetakoetan deskribatzen diren kooperatiba-sustapeneko lorpen zehatzak irakurrita ondorio garrantzitsu bat ateratzen dela, eta ELKAR-LAN, S. COOP.eko bazkide garen erakundeok pozik gaude horretaz: ELKAR-LAN, S. COOP. dagoeneko proiektu sendo eta finkatua da Euskal Kooperatiba Mugimenduen euskarri gisa enpresa-ekimen berriak kooperatiba-erara sustatzeko eta, horrela, kooperatibismoaren presentzia Euskadiko enpresa-jardueraren gero eta eremu gehiagotara zabaltzeko.

Bere lehenengo hirurteko honetan ELKAR-LAN, S. COOP.ek 93 enpresa kooperatibo berri sustatu ditu. Baina gainera beharrezko laguntza eta aholkularitza teknikoa eman du aurrez sortutako 11 enpresa kooperatiba-elkarte bihurtu ahal izateko.

Eta beste erakunde publiko, kooperatiba-talde edo aholkularitza-enpresa pribatu batzuekin lan egin du, kasuaren arabera, guztiz dohainik emanez beraiek eskatutako aholkularitza teknikoa erakunde horien bezero diren kooperatiba-enpresak eratzeko prozesuetan. Lehenengo hirurteko honetan, ELKAR-LAN, S. COOP.ek beste 15 Kooperatiba sortzen ere lagundu du, eta horiekin konpromisoa hartu du eratu ondorengo aholkularitza- eta babes-zerbitzua emateko, berak zuzenean eragindako Kooperatibei ematen dien eduki berberekin.

Esan gabe doa emaitza hauek ezinezko izango zirela kooperatiba-eredua egoki eta zabal erein gabe, eta kooperatiba-zabalkunde eta prestakuntzako zeregin honetan ahalegin handiak egiten jarraitu du.

Ekintzailtza kooperatiboarekin zerikusia duen guztian lortutako espezializazioagatik eta gero eta ugariagoak diren kooperatiba-sustatzaileekin —beren arazo, erronka eta helburuekin— izandako zuzeneko harreman estuagatik, ELKAR-LAN, S. COOP. ekintzailtza kooperatiboaren errealitatea sakon ezagutzen duen erakundea da, eta agian horregatik onartu dute “Euskadiko Enpresa Ekimen Kooperatiboen Behatoki” gisa; zeregin horretan bere txostenak, zalantzarik gabe, oinarri tekniko ona izango dira Euskadin enpresa kooperatiboa sortzeko, gai honetan eskumena duten Herri Administrazioentzat.

Sortu zenetik garatu duen sustatze-jarduera guztia eta irabazi asmorik gabeko elkarte gisa jokatzeke izan dituen irizpideak: horra hor gakoak 2005eko martxoaren 16an Eusko Jaurlearitzak ELKAR-LAN, S. COOP. i Herri

*El ejercicio 2005 ha supuesto para la “Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP.” su tercer año de actividad, trienio que ha concluido cumpliendo las favorables expectativas que habían planificado las tres entidades del Movimiento Cooperativo Vasco que fundaron ELKAR-LAN, S. COOP.: el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, la Confederación de Cooperativas de Euskadi y la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi.*

*Creo que de la lectura de las materializaciones concretas en el terreno de la promoción cooperativa que se describen en esta Memoria 2005 y en las de los dos ejercicios precedentes se extrae una importante conclusión de la que las organizaciones socias de ELKAR-LAN, S. COOP. nos sentimos satisfechas: ELKAR-LAN, S. COOP. es ya un proyecto consolidado como soporte ejecutivo del Movimiento Cooperativo Vasco para promover nuevas iniciativas empresariales al modo cooperativo y, de esta forma, ensanchar y expandir la presencia del cooperativismo de forma progresiva, a un mayor número de espacios de actividad empresarial en Euskadi.*

*En este su primer trienio ELKAR-LAN, S. COOP. ha promovido la creación de 93 nuevas empresas Cooperativas. Pero además, ha prestado el apoyo y asesoramiento técnico necesario para que 11 empresas ya existentes se transformaran en sociedades Cooperativas.*

*Y ha colaborado con otras instituciones públicas, grupos cooperativos, o con consultorías privadas, según el caso concreto, ofreciéndoles de forma absolutamente gratuita el asesoramiento técnico requerido por estos en procesos de constitución de empresas Cooperativas clientes de dichas entidades. En este primer trienio, ELKAR-LAN, S. COOP. ha colaborado en el nacimiento de otras 15 Cooperativas, con las cuales se ha comprometido también a ofrecerles su servicio de asesoramiento y tutela post-constitucional con el mismo contenido que el que presta a las Cooperativas que promueve directamente.*

*Sobra decir que estos resultados no hubieran sido posibles sin una adecuada y amplia siembra del modelo cooperativo, tarea ésta de la difusión y la formación cooperativa en la que se ha continuado realizando grandes esfuerzos.*

*Esta especialización en todo lo que tiene que ver con el emprendizaje cooperativo y el contacto directo y a pie de obra con los cada vez más numerosos grupos de promotores cooperativos, con sus problemas, retos y aspiraciones; convierten a ELKAR-LAN, S. COOP., en una entidad profundamente conocedora de la realidad del emprendizaje cooperativo, y quizás sea ello lo que le ha merecido su reconocimiento como el “Observatorio de las Iniciativas Empresariales Cooperativas en Euskadi”, tarea en la cual sus informes serán sin duda una buena base técnica para el fomento de la empresa cooperativa en Euskadi por parte de las Administraciones Públicas competentes en esta materia.*



Onurako izaera emateko "bere funtzioak garatuz Euskadiren onuraren sustapenari laguntzeagatik".

Lorpen horien atzean, batez ere eta lehenik, ELKAR-LAN, S. COOP.eko langileak daude, teknikariak eta zuzendaria, beren jarrera eta bokazio kooperatiboarekin eta beharrezko arduraldi eta ahaleginarekin kooperatiba-sustapenerako egitura on baten oinarriak ari dira jartzen; beraz, zertzen ari diren lanak esker onik zintzoena merezi du.

Neuri dagokidanez, eskertu nahi nuke Kontseilu Errektoreko kide gisa, beti ilusio handiz eta erabateko prestutasunez, José Luis Andrések egindako lana; orain kargua utzi du erretiroa hartu duelako bera bazkide langile zen Kooperatiban (FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS, S. COOP.) eta haren postua Kontseiluan Javier Gantxegik hartu du, hau ere aurrekoaren Kooperatiba berekoa.

Nire esker onik beroena Herri Administrazioei ere, 2005eko ekitaldian ELKAR-LAN, S. COOP.ekin lan egin dutelako, aurrez planifikaturiko ekintzak gauzatzea ahalbidetuz. Alde horretatik ezin aipatu gabe utzi Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza egiten ari den ekarpen handia, Euskadin Gizarte Ekonomiako enpresak sustatzeko estrategia egokiarekin; eta eskerrak halaber Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuari, 2005eko ekitaldian hasitako elkarlan zehatzak gauzatzeak konfiantza jarri duelako ELKAR-LAN, S. COOP.engan; zalantzarik gabe, jarraipen arrakastatsua izango dute datozen ekitaldietan.

Nire esker ona, halaber, 2005ean ELKAR-LAN, S. COOP. diruz lagundu duten Kooperatiba guztiei; horiek guztiak agertzen dira Oroitidazki honetako zerrendan.

Sarrerako paragrafo hauetan lortutako lorpenengatik esan ditudan poz eta gogobetetasunezko hitzak ez nituzke nahi inork geure buruarekiko asetasun parasitario gisa interpretatzerik. Aitzitik, datorren 2006ko ekitaldiari ekiteko orain arte izan dugun bokazio-sendotasun berbera izango dugu gure jarreran, eta arduraldi trinko eta ilusioz betea, Euskadin Kooperatiba enpresak sustatzeko dagokigun eginkizunean emaitza onak lortzen jarraitzeko bide onetik gabiltzala uste baitugu.

Agustín Mendiola Gorospe  
Lehendakaria

*Toda la actividad promotora desarrollada desde su constitución y sus criterios de actuación en base a su naturaleza de sociedad carente de ánimo de lucro han sido las claves para que el 16 de marzo de 2005 ELKAR-LAN, S. COOP. haya sido declarada de Utilidad Pública por el Gobierno Vasco "debido a su contribución a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus funciones".*

*Detrás de estos logros están ante todo y en primer lugar los trabajadores de ELKAR-LAN, S.COOP., tanto los técnicos como el Director, que con su actitud y vocación cooperativa y la dedicación y el esfuerzo necesarios están cimentando una buena estructura para la promoción cooperativa; de modo que el trabajo que están desarrollando es merecedor del reconocimiento y el agradecimiento más sincero.*

*En el orden personal quiero también agradecer el trabajo prestado como miembro del Consejo Rector, siempre con gran ilusión y plena disposición, a José Luis Andrés, que ha cesado en el cargo debido a su jubilación como socio-trabajador en su Cooperativa de procedencia, FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS, S. COOP., puesto que ha sido cubierto con el nombramiento de Javier Gantxegi como nuevo consejero, que procede también de la misma Cooperativa.*

*Mi más sentido agradecimiento también a las Administraciones Públicas que han colaborado en el ejercicio 2005 con ELKAR-LAN, S. COOP. haciendo posible que las iniciativas previamente planificadas pudieran ser materializadas. En este terreno no puedo menos que destacar la gran contribución que está efectuando la Dirección de Economía Social del Gobierno Vasco en una acertada estrategia de fomento de las empresas de Economía Social en Euskadi y expresar, así mismo, el agradecimiento al Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa por confiar en ELKAR-LAN, S. COOP. para la ejecución de las colaboraciones concretas ya iniciadas en el ejercicio 2005 y que, sin duda, tendrán una continuación exitosa en los próximos ejercicios.*

*Quiero también dejar constancia de mi gratitud a todas las Cooperativas que en el 2005 han apoyado económicamente a ELKAR-LAN, S. COOP., cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria.*

*El tono ilusionado y de satisfacción por los logros conseguidos que he empleado en estos párrafos de saludo no quisiera que se interpretaran como una señal de autosatisfacción parasitaria. Al contrario, la actitud con la que vamos a abordar el próximo ejercicio 2006 en el que nos adentramos, va a contener la misma fortaleza vocacional y de intensa e ilusionada dedicación que hemos desplegado hasta el presente, en la convicción de que este es el buen camino para continuar obteniendo resultados favorables en nuestra tarea de promover empresas Cooperativas en Euskadi.*

Agustín Mendiola Gorospe  
Presidente





**|||** **INFORMAZIOA ETA**  
**• ZABALKUNDEA**  
***INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN***

Kooperatiben sorrera bultzatzeko, gure bezero izan daitezkeen artean Kooperatiba bat zer den azaltzen jarraitu dugu, bere berezitasunak, abantailak edo desberdintasunak beste sozietate-egitura batzuen aldean, berriazko laguntzak, zerga eta kontabilitate arloan duten araudia, etab. Halaber, gure berri bazuten erakundeekin harremanak hobetu ditugu, eta beste erakunde batzuekin beharrezko harremanak izan ditugu ELKAR-LAN, S. COOP.en errealitatea jakinarazteko.

Helburu hori betetzeko, ondorengoak egin ditugu:

1.- ELKAR-LAN, S. COOP. ETA BERE JARDUERAK ETA HARREMANAK AURKEZTEKO BANAN-BANAKO BILERAK DAGOENEO EZAGUTZEN GAITUZTEN ERAKUNDEEKIN.

Ondorengo erakunde hauekin egin ditugu bilerak:

- Enpresak eta Berrikuntza Zentroak (CEI) eta Enpresa Sustapenerako Zentroak:  
Harremanetan jarraitzen dugu Zentro horiekin, bai beraiek eskatuta eta bai geure ekimenez.
- Toki Garapeneko Agentziak eta Behargintzak.  
Guztiak bisitatu ditugu, harreman erraz eta zuzenak ditugu beraien teknikariek zuzenean horrela eskatzen digutenean edota, ELKAR-LAN, S. COOP.etik antolatzen diren ekitaldietan: adibidez, enpresa kooperatiboen Bideragarritasun Plana egiteko aplikazio teknikoaren (ELKAR-PLAN gisa ezagunagoaren) aurkezpena Bilbon, Donostian eta Gasteizen.  
Halaber, beraien lokaletan izan ditugun bilerak azpimarratu behar ditugu, beraien teknikariek eskatuta, kooperatiba-eredua ezagutzeko interesa duten sustatzaileekin; bilera horien emaitza gisa, dagoeneko eratu dira Kooperatiba batzuk.
- LANBIDE  
Bilera bana egin da Basaurin, Irunen eta Agurainen dauden hiru bulegoetako zuzendariekin.
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra  
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako bakoitzeko Diruzaintzetako teknikariek hainbat zuzemen edo gestio egin dugu eratzen ditugun Kooperatiben premien arabera.

Para promocionar la creación de Cooperativas seguimos dando a conocer, entre nuestros potenciales clientes, lo que es una Cooperativa, sus peculiaridades, ventajas o diferencias sobre otras configuraciones societarias, las ayudas específicas, su regulación fiscal, contable, etc. Así mismo hemos mejorado y atendido las relaciones con las entidades que ya tenían conocimiento de nuestra existencia, además de haber gestionado con otras entidades los correspondientes contactos para darles a conocer la realidad de ELKAR-LAN, S. COOP.

Para abordar dicho objetivo se han realizado las siguientes actuaciones:

1.- REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S.COOP., ASÍ COMO DE SUS ACTIVIDADES Y RELACIONES CON ENTIDADES QUE YA NOS CONOCEN.

Estas reuniones, las hemos celebrado con las entidades siguientes:

- Centros de Empresas e Innovación (CEI) y Centros de Promoción Empresarial:  
Seguimos manteniendo contactos con dichos Centros, tanto a instancias de ellos como por nuestra propia iniciativa.
- Agencias de Desarrollo Local y Behargintzak.  
Habiendo sido todas ellas visitadas, mantenemos contactos fluidos y directos con sus técnicos cuando éstos así nos lo requieren directamente o, en los eventos que se organizan desde ELKAR-LAN, S. COOP. como la presentación de la aplicación técnica para la elaboración del Plan de Viabilidad de empresas Cooperativas, más conocido como ELKAR-PLAN en Bilbao, San Sebastián y Vitoria.  
Así mismo, debemos resaltar las reuniones que hemos mantenido en sus locales, a instancia de sus técnicos, con promotores interesados en conocer el modelo cooperativo y como fruto de estas reuniones se han constituido ya algunas Cooperativas.
- LANBIDE  
Se han mantenido sendas reuniones con los Directores de las tres oficinas sitas en Basauri, Irun y Salvatierra.
- Tesorería General de la Seguridad Social  
Hemos realizado diferentes gestiones con técnicos de las Tesorerías de cada uno de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa en función de las necesidades de las Cooperativas que constituimos.



- **INEM**  
Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko INEMen atal desberdinen arduradunekin bilerak izan ditugu.
- **Merkataritza Ganberak**  
Bilera bana izan dugu Araba eta Bilboko Merkataritza Ganberetan, Enpresak Sortu eta Finkatzeko Laguntza Zerbitzuen arduradunekin.
- **Aholkularitza-enpresak**  
Arreta pertsonalizatu berezia eman zaie hauei, 2005eko Oroitidazki honen 9. atalean ikus daitekeen bezala.
- **Fundazioak eta Elkarteak**  
Bilerak izan dira honako hauekin:
  - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE AUTOMOCIÓN DE GIPUZKOA (AEGA)/ GIPUZKOKO AUTOMOZIO ENPRESEN ELKARTEA
  - LABORAL SAN PRUDENCIO FUNDAZIOA.
  - GAZTENPRESA FUNDAZIOA.
  - ASOCIACIÓN DE MUJERES PROFESIONALES Y EMPRESARIAS DE ALAVA (AMPEA)/ ARABAKO EMAKUME PROFESIONAL ETA ENPRESABURUEN ELKARTEA.
  - AZARO FUNDAZIOA.
- **Foru Aldundiak**  
Bilerak egin ditugu gure Autonomia Erkidegoan hiru Lurralde Historikoetan enpresa-sustapenaren arloan eskumenak eta ardurak dituzten foru-diputatu, zuzendari, zerbitzu-buru eta teknika-riekin.
- **Unibertsitateak**  
Bilerak izan ditugu UPV/EHU-ko eta Deus-tuko Unibertsitateko Institutu Kooperatibo eta Gizarte Ekonomiakoekin, baita Mondragón Unibertsitateko errektoreordearekin ere. UPV/EHU-ko Lan Harremanetarako Eskola-ren zuzendariarekin ere bildu gara.
- **Beste Erakunde batzuk**  
Ondorengo erakunde eta instituzioek egin dizkiguten kontsulta eta bisitetan parte hartu eta lagundu dugu: Mataróko Lankideen Fundazioa, COCETA (Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa), FEVECTA (Valentziako Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa), Andaluziako Prestakuntza Fundazioa, Kataluniako Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa, Enplegu Era Berrien Institutu Nazionala (Montpellier-eko INEF). Hungariako eta Kolonbiako Ordezkaritza Ofizialak.
- **INEM**  
Hemos celebrado reuniones con responsables de diferentes secciones de los INEM de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia.
- **Cámaras de Comercio**  
Hemos mantenido sendas reuniones con responsables del Servicio de Apoyo a la Creación y Consolidación de Empresas, de las Cámaras de Comercio de Álava y de Bilbao.
- **Consultorías y Asesorías**  
Han sido objeto de una especial atención personalizada tal y como se refleja en el apartado 9 de este capítulo de la Memoria 2005.
- **Fundaciones y Asociaciones**  
Se han mantenido reuniones con:
  - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE AUTOMOCIÓN DE GIPUZKOA (AEGA)
  - FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO.
  - FUNDACIÓN GAZTEMPRESA.
  - ASOCIACIÓN DE MUJERES PROFESIONALES Y EMPRESARIAS DE ÁLAVA (AMPEA).
  - AZARO FUNDAZIOA.
- **Diputaciones Forales**  
Hemos mantenido reuniones con Diputados Forales, Directores, Jefes de Servicios y Técnicos, con competencias y responsabilidades en el área de promoción empresarial, de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma.
- **Universidades**  
Hemos mantenido reuniones con los Institutos Cooperativos y de Economía Social de la UPV y de la Universidad de Deusto, así como con el Vicerrector de Mondragón Unibertsitatea. También hemos mantenido una reunión con el Director de la Escuela de Relaciones Laborales de la UPV
- **Otras Entidades e Instituciones**  
Hemos participado y colaborado en las consultas y visitas que nos han efectuado las entidades e instituciones siguientes: Fundación de Cooperadores de Mataró, COCETA (Confederación Española de Cooperativas de Trabajo Asociado), Federación Valenciana de Cooperativas de Trabajo Asociado (FEVECTA), Fundación de Formación Andaluza, Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Catalunya, Instituto Nacional de Nuevas Formas de Empleo (INEF de Montpellier). Delegación Oficial de Hungría y Delegación Oficial de Colombia.



## 2.- HERRI ONURAKO IZAERA.

ELKAR-LAN, S. COOP. Herri Onurako izaera eman dio Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean 2005eko apirilaren 20an argitaratutako xedapenaren bidez; hona hemen hitzez hitz:

**AGINDUA, 2005eko martxoaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena. Honen bidez, Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, Koop. Sozietateari herri onurako izaera ematen zaio.**

### AURREKARIAK:

- 1.- 2004ko abenduaren 21ean, Agustín Mendiola Gorospe Jaunak Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan Koop. Sozietatearen izen eta ordezkartzan, aipatutako entitateari herri onurako izaera ematea eskatu zuen. Eskaearekin bat, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzen duen otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuaren 7. artikuluan zehazten diren eskakizunak betetzeko galdatutako dokumentazioa ere aurkeztu zuen.
  - 2.- 2005eko otsailaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez, espedientea jendaurrean jarri zen, horrela, interesatuta zegoen edonork espedientea aztertu ahal zezan eta alegazioak jar zitzaizkion, hobe eguneko epean. Epe horren barruan, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.
- Aurreko egiteei ezargarri zaizkie ondorengo.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

- 1.- Euskadiko Kooperatiben Legeak, ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, bere 137.2. artikuluan dio, Euskadiren onuraren sustapenari laguntzen dioten kooperatibei herri onurako izaera emango diela Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez ezarritako prozedura, araubidea eta betekizunen arabera.
  - 2.- Artikulu hori garatuz otsailaren 2ko 64/1999 Dekretua onartu zen, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozedura eta betekizunen araudia onartzeko dena.
  - 3.- Herri onurako izaera emateko 64/1999 Dekretuaren 7. eta hurrengo artikuluetan ezarritako izapideak bete dira.
  - 4.- 64/1999 Dekretuak, herri onurako izaera lortzeko bere 5. artikuluan ezartzen dituen betekizunak zuzen bete direla baieztatu da.
  - 5.- 64/1999 Dekretuaren 11. artikuluen arabera, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburua da kooperatiba sozietate bati herri onurako izaera emateko eskuduna.
- Hori guztia dela eta, aipatutako arauak eta ezargarriak diren gainontzeko arau orokorrak ikusirik.

EBATZI DUT:

## 2.- DECLARACIÓN DE UTILIDAD PÚBLICA.

ELKAR-LAN, S. COOP. ha sido declarada de Utilidad Pública por el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social mediante la disposición publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 20 de abril de 2005, que reproduce a continuación:

**ORDEN de 16 de marzo de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, S. Coop.**

### ANTECEDENTES DE HECHO:

- 1.- Con fecha 21 de diciembre de 2004 D. Agustín Mendiola Gorospe, en nombre y representación de la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, S. Coop., solicitó que dicha sociedad fuese declarada de Utilidad Pública. Se adjuntaba a la solicitud la documentación exigida para el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 7 del Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública.
- 2.- En el Boletín Oficial del País Vasco de 17 de febrero de 2005 se abrió un periodo de Información Pública para que cualquier persona interesada pudiera examinar el expediente y formular las alegaciones que considerase oportunas en un plazo de veinte días; vencido dicho plazo no se presentaron ningún tipo de alegaciones.

A los anteriores hechos son de aplicación los siguientes

### FUNDAMENTOS DE DERECHO:

- 1.- El artículo 137.2 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, dice que las entidades cooperativas que contribuyan a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus funciones serán reconocidas de utilidad pública por el Gobierno Vasco conforme al procedimiento, régimen y requisitos que se establezcan reglamentariamente.
- 2.- En desarrollo de dicho artículo se aprobó el Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública.
- 3.- Se han cumplido los trámites procedimentales establecidos en los artículos 7 y siguientes del reiterado Decreto 64/1999 para la declaración de utilidad pública.
- 4.- Se ha comprobado el correcto cumplimiento de los requisitos que en su artículo 5 establece el Decreto 64/1999 para obtener dicha declaración de utilidad pública.
- 5.- Es competente para declarar a una sociedad cooperativa de utilidad pública, el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 64/1999.

*Lehenengoa.- Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan Koop. Sozieta-teari herri onurako izaera ematea.*

*Bigarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.*

*Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuari. Berraztertze errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikulua). Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administra-zioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 10.1.a eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betez (29/1998 Legeak Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen du).*

*Vitoria-Gasteiz, 2005eko martxoaren 16a.  
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,  
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.*

*Xedapen honek aitortzen du gure helburu soziala betetzeko egiten ditugun jarduerak Euskadiren onura orokorra sustatzeko direla.*

- 3.- ZIRKULARRAK BIDALTZEA EAE-KO ENPRESETARA KOOPERATIBA BIHURTZEKO DAUDEN LAGUNTZEN BERRI EMANEZ, ETA BISITAK ENPRESA INTERESATUETARA.

Autonomia Erkidegoan 3 eta 50 lanpostu artean dituzten enpresa guztietara zirkularra bidali da ETE-Enpresa Txiki eta Ertainak Kooperatiba bihurtzeko dauden laguntzen berri emanez. Eskutitzaren ondorioz, interesa azaldu duten 48 enpresa bisitatu dira eta beraiekin zuzemen edo gestioak egin dira, bilerak edo harremanak beti jabeekin edo akziodun nagusiekin izan direlarik.

- 4.- KORPORAZIO-IRUDIA ETA WEB ORRIA (www: elkarlan.coop)

Gure korporazio-irudia euskarri fisikoen —diptikoen— eta web orriaren bidez zabaldu dugu, hau etengabe gaurkotzen ari garelarik. Horren emaitza dira ekitaldian izan ditugun ia 16.000 bisitak eta 360.000 hits baino gehiago, eta horrek esan nahi du %50 eta %75 baino hazkunde handiagoak hurrenez hurren, aurreko ekitaldiko parametroen aldean.

*Por todo cuanto antecede, vistos los preceptos normativos citados y los demás de general y pertinente aplicación*

**RESUELVO:**

*Primero.- Se declara de Utilidad Pública a la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, S. Coop.*

*Segundo.- La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.*

*La presente Orden agota la vía administrativa. Contra ella cabe interponer potestativamente recurso de reposición ante el órgano que dicta el presente acto en el plazo de un mes, de acuerdo con lo previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente de la publicación, conforme a lo dispuesto en el artículo 10.1.a en relación con el 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.*

*En Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2005.  
El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,  
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.*

*La cual reconoce que las actividades que desplegamos para cumplir nuestro objeto social contribuyen a la promoción del interés general del Euskadi.*

- 3.- DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS Y VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS.

ELKAR-LAN, S. COOP. remitió una circular a todas las empresas de la Comunidad Autónoma Vasca de entre 3 y 50 empleos informándoles sobre las ayudas existentes para la transformación de PYMES en Cooperativas. Como fruto de la misiva se visitaron y se realizaron gestiones con 48 empresas que se interesaron por su contenido, teniendo siempre reuniones o relaciones con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios.

- 4.- IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINA WEB (www: elkarlan.coop)

Hemos difundido nuestra imagen corporativa a través de nuestros soportes físicos —dipticos— y por nuestra página web, que estamos actualizándola constantemente, y fruto de ello la web ha tenido más de 16.000 visitas y de 360.000 hits, durante este ejercicio, lo que ha supuesto crecimientos superiores al 50 % y 75 %, respectivamente, respecto a dichos parámetros en el ejercicio precedente.

5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NOTARIOEKIN HARREMANAK, KOOPERATIBEN ERAKETAN BEREN LANA ERRAZTEKO.

Hain kualifikatua den talde honetan ere gure zabalkundeak bete nahirik, bere garaian Zirkular batekin hasi eta harreman zuzenak eta ugariak izan ditugu notarioekin eta beraien ofizialetako batzuekin; horren ondorioz, bulego horietan Kooperatiben eraketan tramitazio sinkronizatuak ari gara sumatzen.

6.- KOMUNIKABIDEETAN ELKARRIZKETAK ETA PARTE-HARTZEAK

ELKAR-LAN, S.COOP. albiste izan da bere sustapen-jardueragatik hainbat komunikabidetan eta aldizkari espezializatutan (EUSKAL ENPRESA KOOPERATIBOA, TU LANKIDE eta EUSKADIKO KONTSUMO KOOPERATIBEN FEDERAZIOAREN ALDIZKARIA).

Beste zenbait komunikabidetan —prentsa idatzi nahiz irratietan, EAEn hedapen handiena dutenetan, eta tokian tokiko telebistaren batean— ere parte hartu eta lan egin du, kooperatibak sustatzeko gure bokazioa transmititu eta euskal gizartea kooperatiba-enpresak sortzera bultzatzeko helburuarekin betiere.

7.- ZENBAIT EKITALDITAN PARTE-HARTZEA

ELKAR-LAN, S.COOP.eko teknikariek kooperatiba-eredua zabaldu edo ezagutarazi dute, hizaldien bidez, ondorengo ekitaldiotan:

- Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioaren (COCETA) 6. Biltzarra (Sevillan, 2005eko 23tik 25era),
- Valentziako Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren (FEVECTA) V. Biltzarra (Valentzian, 2005eko maiatzaren 20an).
- Mataró-ko Lankideen Fundazioaren aurkezpenean parte hartzea (Mataró, 2005eko azaroaren 30ean).
- Euskadiko Kooperatiben Legearen erregelamendu-garapenari buruzko jardunaldia (Gasteizen, 2005eko maiatzaren 12an), Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioarentzat emana.
- Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren Erregelamenduari buruzko jardunaldiak: Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioarentzat (Gasteizen, 2005eko ekainaren 23an) eta Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioarentzat (Gasteizen, 2005eko irailaren 26an).

5.- RELACIONES CON LAS NOTARIAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA FACILITARLES SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS

Fieles a nuestros objetivos de difusión para con este colectivo tan cualificado, que en su momento iniciamos con una Circular, hemos mantenido relaciones fluidas con los Notarios, con los que nos hemos puesto en contacto, así como con algunos de sus Oficiales, y como consecuencia de ello, en dichas Notarias estamos apreciando una tramitación más sincronizada de las constituciones de Cooperativas.

6.- ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN

ELKAR-LAN, S.COOP., ha sido noticia por su actividad promotora en diferentes medios de comunicación, y en las revistas especializadas EUSKAL ENPRESA KOOPERATIBOA, TU LANKIDE y la REVISTA DE LA FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE CONSUMO DE EUSKADI.

También ha participado y colaborado en diversos medios de comunicación, tanto escritos como en las radios de mayor implantación en nuestra Comunidad Autónoma y en alguna televisión local, con el objetivo de transmitir nuestra vocación de promoción cooperativa y animar a la sociedad vasca a emprender cooperativamente.

7.- PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS

Los técnicos de ELKAR-LAN, S.COOP., han difundido el modelo cooperativo, a través de la exposición de Conferencias, en los eventos siguientes:

- 6º Congreso de la Confederación Española de Cooperativas de Trabajo Asociado (COCETA) (Sevilla, del 23 al 25 de febrero de 2005).
- V Congreso de la Federación Valenciana de Cooperativas de Trabajo Asociado (FEVECTA) (Valencia, 20 de mayo de 2005).
- Participación en la presentación de la Fundación de Cooperadores de Mataró (Mataró, 30 de noviembre de 2005).
- Jornada sobre el desarrollo reglamentario de la Ley de Cooperativas de Euskadi (Vitoria-Gasteiz, 12 de mayo de 2005) impartida para la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi.
- Jornadas sobre el Reglamento del Registro de Cooperativas de Euskadi impartidas para la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi (Vitoria-Gasteiz, 23 de junio de 2005) y para la Federación de Cooperativas de Enseñanza de Euskadi (Vitoria-Gasteiz, 26 de septiembre de 2005).

- Gasteizko Ekintzailearen Eguna (Gasteizen, 2005eko maiatzaren 20an).
- Deustuko Unibertsitateko Ikasketa Kooperatiboaren Institutua (Bilbon, 2005eko maiatzaren 4an).
- Kooperatiba Integralei buruzko Prestakuntza Jardunaldia Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioarentzat (Araian, 2005eko martxoaren 9an).
- Kooperatiba Legeari buruzko jardunaldia Asturiasen, Asturiasko Lan Elkartuko Sozietateen Elkarteak (ASATA) antolatua (Gijonen, 2005eko martxoaren 17an).

Aipaturiko Hitzaldietan egin den azalpen-lan handi horretaz gain, ELKAR-LAN, S. COOPeko teknikariak Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak (ELEKF/FCTAE) eta Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioak antolaturiko ikastaroetan izan dira, baita Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan zenbait Mintegitan ere.

#### 8.- KONTSULTEI ERANTZUTEA

Aurtengo ekitaldian 415 kontsulta egin dizkigute. Zein lurraldetatik egin zaizkigun kontuan hartuta, hona hemen xehekapena:

- 415 KONTSULTA
  - 76 Arabatik
  - 149 Bizkaitik
  - 112 Gipuzkoatik
  - 78 beste lurralde batzuetatik
- Ondorengo gai hauei buruzkoak:
  - Kooperatibei buruzko informazio orokorra
  - Zerga-gaiak
  - Estatutu Sozialak
  - Enpresak Kooperatiba eraldatu edo bihurtzea
  - Gizarte Segurantzaren Kooperatibetan
  - Prestakuntza.

#### 9.- ZIRKULARRAK EGIN ETA BIDALTZEA

Zirkular asko egin eta bidali dira, bai masiboki eta bai banaka, bai posta elektronikoz —badutela dakigunean— eta bai ohiko postaz, horiek guztiak (40 zirkular) [www: elkarlan.coop](http://www.elkarlan.coop) web gunean jarri direlarik.

Zirkular horiek honako gai hauei buruzkoak izan dira:

- Estatuaren 2005eko Aurrekontu Orokorren berritasunak.
- Gizarte Segurantzari buruzko arauak.

- Día del Emprendedor de Vitoria-Gasteiz (Vitoria-Gasteiz, 20 de mayo de 2005).
- Instituto de Estudios Cooperativos de la Universidad de Deusto (Bilbao, 4 de mayo de 2005)
- Jornada de Formación sobre Cooperativas Integrales para la Federación de Cooperativas de Consumo de Euskadi (Araya, 9 de marzo de 2005)
- Jornada sobre la Ley de Cooperativas en Asturias organizada por la Asociación de Sociedades Asturianas de Trabajo Asociado (ASATA) (Gijón, 17 de marzo de 2005)

Además de esta ingente tarea de exposición de las citadas Conferencias, los Técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP. han asistido a Cursos organizados por la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi (FCTAE) y por la Federación de Cooperativas Agrarias de Euskadi, así como a varios Seminarios de los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco.

#### 8.- ATENCIÓN A CONSULTAS

Durante el presente ejercicio se han atendido 415 consultas, siendo su desglose, por procedencia territorial el siguiente:

- 415 CONSULTAS ATENDIDAS
  - 76 procedentes de Araba.
  - 149 procedentes de Bizkaia.
  - 112 procedentes de Gipuzkoa.
  - 78 de otras procedencias territoriales.
- y que se han referido a las materias siguientes:
  - Información general sobre Cooperativas.
  - Fiscalidad.
  - Estatutos Sociales.
  - Transformación de empresas en Cooperativas.
  - Seguridad Social en Cooperativas.
  - Formación.

#### 9.- ELABORACIÓN Y REMISIÓN DE CIRCULARES

Se confeccionaron y se remitieron múltiples circulares, tanto masivas como de carácter individualizado, y tanto por correo electrónico para aquellos que tenemos constancia del mismo, como por correo ordinario, además de colgar todas ellas (40 circulares) en la página web [www: elkarlan.coop](http://www.elkarlan.coop)

El contenido de las Circulares se ha referido a las materias siguientes:

- Novedades de los Presupuestos Generales del Estado de 2005.
- Normas relacionadas con la Seguridad Social.



- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza-programak.
- Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak.
- Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren Antolaketa eta Jarduera Araudia.
- Euskadiko Kooperatiba Legearen Erregulamendua.
- Langabezia Prestazioaren Ordainketa Bakarraren aldaketa.
- Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko diagnostikoetarako laguntzak.
- Hiru Foru Aldundien araudiak zerga-gaietan.
- Tabakismoaren aurkako Legea
- Beste batzuk espezifikoak, hartzaile oso jakinentzat zirenak.

#### 10.- ZABALKUNDE- ETA SUSTAPEN-KANPAINA AHOHKULARITZA-ENPRESA ETA KUDEATZE-AGENTZIAN

Kanpaina iraunkorra da hau eta egiten dugu jabetzen garelako enpresa hauek oso garrantzitsuak direla agintzaile gisa; izan ere, sustatzaileek beren enpresa-proiektuaren forma juridikoaz erabakia hartu behar dutenean, horiek eskatzen diete iritzi kualifikatua, konfiantza osoko profesionaltzat dauzkate eta.

Horretarako, aholkularitza-enpresa eta kudeatze-agentzien bulego profesionaletan banan-banako 128 bilera izan ditugu beraiekin.

Kanpaina honek hurrengo ekitaldian izango du jarraipena eta horren emaitza dira ELKAR-LAN, S.COOPeko teknikariek aholkularitza-enpresa eta kudeatze-agentziekin izandako harreman ugariak; horrela, kooperatiba-ereduaren irudia talde horretan are gehiago hobetzea espero dugu, horiek baitira enpresak sortzen dituzten ekintzaile gehienengana iristen direnak.

#### 11.- LAN-EKINTZA, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA ETA GAZTEMPRESA FUNDAZIOAREKIKO HARREMANAK

Ekitaldi honetan harremanak eta zuzeneko kontaktak areagotu ditugu SAIOLAN, eta AZARO FUNDAZIOAREKIN, eta erakunde horiei esker banan-banako bilerak egin ditugu sustatzaileekin, eta horien emaitza gisa Kooperatiba batzuk eratu dira.

Bestalde, LAN-EKINTZA eta GAZTEMPRESA FUNDAZIOAREKIKO harremanei dagokienez,

- Programas de Ayudas de las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.
- Programas de Ayudas del Gobierno Vasco.
- Reglamento de Organización y Funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi.
- Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi.
- Modificación de Pago Único de la Prestación por Desempleo
- Ayudas para diagnósticos sobre igualdad de mujeres y hombres.
- Ayudas para la implantación de sistemas de gestión en Riesgos Laborales.
- Regulaciones en materia fiscal de las tres Diputaciones Forales.
- Ley contra el tabaquismo
- Otras específicas que afectaban a destinatarios muy concretos.

#### 10.- CAMPAÑA DE DIFUSIÓN Y PROMOCIÓN ANTE ASESORÍAS, CONSULTORÍAS Y GESTORÍAS

Esta es una Campaña continua que la seguimos realizando porque somos conscientes de la importancia que tienen como prescriptores para los promotores que les piden su opinión cualificada – como profesionales en los que tienen plena confianza-, a la hora de tomar una decisión sobre la configuración jurídica de su proyecto empresarial.

A dicho efecto hemos mantenido, en sus respectivos despachos profesionales de consultorías, asesorías y gestorías, 128 reuniones individuales.

Fruto de esta Campaña, que tendrá su continuidad en el próximo ejercicio, son las fluidas relaciones entre los técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP., con varias de las consultorías, asesorías y gestorías visitadas esperando que consigamos mejorar aún más la imagen del modelo cooperativo entre dicho colectivo, ya que ellos son quienes acceden al núcleo mayoritario de emprendedores que constituyen empresas.

#### 11.- RELACIONES CON LAN-EKINTZA, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA Y FUNDACIÓN GAZTEMPRESA

Durante este ejercicio hemos intensificado nuestras relaciones y contactos directos con SAIOLAN y AZARO FUNDAZIOA, y gracias a dichas entidades hemos mantenido reuniones individualizadas con promotores, y fruto de las mismas se han constituido algunas Cooperativas.

